



Arartekoaren 2020S-2040-19 Ebazpena, 2020ko uztailaren 27koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradokitzen zaio Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorren aurreikuspenak aldatzeko, ahultasun egoeran dauden familiek duintasunez ordaindu ahal izateko Gasteizko Udalarekiko pilatzen dituzten zorrak zatikaturik.

Aurrekariak

1. Kexagileak kexa-idatzi bat aurkeztu zion Arartekoari, Gasteizko Udalak borondatezko aldian egindako premiamendu-prozedura batean izandako jarduketarekin ados ez zegoela adierazteko. Prozedura horren printzipala 2.340,60 eurokoa zen, borondatezko epean.

Alegatu zuenez, 2017an, Gasteizko Udalak bere gain jarri zuen jarduera eten zen unean bera administratzaile zen enpresaren erantzukizuna, sozietate mugatu horrek Gasteizko Udalarekin zituen zorreatatik. Aitortu zuen ezin izan ziola ordainketari aurre egin, ez eta ordainketa zatikatu ere; izan ere, proposatutako hilekoen zenbatekoek zorra ordaintzeko kexagilearen eta haren alabaren oinarrizko beharrei erantzuteko behar zituen baliabide batzuetara bideratzea eskatzen baitzioten.

Adierazi zuen 2019an zehar Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldunditik bere alde onartutako kreditu baten traba gauzatu zuela, bai eta bere kontu korrontean zeuden saldoen zenbait enbargo ere.

Azaldu zuen, era berean, 2019ko urtarriletik zenbait aldiz jarri dela harremanetan Zerga-bilketako Zerbitzuarekin, eta, 2019ko irailaren 19an, eguneroko oinarrizko gastuak ordaindu ezinik zebilenez, enbargoa bertan behera uzteko eta jasaten ari zen egoera ekonomikoari egokitzeko eskatu zuela.

Aitortu zuen bere kontu korrontean enbargatutako zenbatekoa 38 eurora murriztuta geratu zela, bere familia jasaten ari zen egoera ekonomiko latzean oinarrituta toki-erakunde horren aurrean errekurtsio bat sustatu zuenean. Hala ere, kontu korronteko saldoen gaineko esku-hartzeak ez ziren amaitu, nahiz eta Zerga-bilketako Zerbitzuak bazekizkien zailtasun ekonomikoak zituela, eta, beraz, ez zuen ulertzen zergatik adostu zen enbargatu beharreko zenbateko hori kontu korrontean zegoen saldo osora zabaltzea.

Kexagileak adierazi zuen bere alaba adinez nagusiarekin batera guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bat osatzen zuela, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuena, hilean 556,36 euro, 12 hilekotan. Gainera, esan zuen alabak 270,76





euro jasotzen zituela (14 hilekotan) zurtasun-pentsioa dela-eta. Hala ere, azpimarratu zuen zurtasun-pentsio horren onuradun bakarra bere alaba zela, eta ez zela toki-erakunde horren zorduna. Azkenik, jakinarazi zuen 2019ko ekainetik 100 euro gehiago jasotzen ari zela hilean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen kontzeptu gisa, bizi zen etxebizitzako hornidura-gastuei aurre egiteko. Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuek aitortu zioten laguntza, bere egoera ekonomikoaren hauskortasuna kontuan hartuta.

2. Gasteizko Udalari premiamendu-prozedurari buruzko hasierako informazio-eskaera egin ondoren, toki-erakunde horrek egindako enbargoen berri eman zuen.

Kexagileak aurkeztutako dokumentazioa eta Zerga-bilketako Zerbitzuak bidalitako informazioa ikusita, Arartekoak enbargatutako zenbatekoek eragiten zizkieten zalantzak azaldu zituen, izan ere, interesdunari esleitutako prestazio guztien batura $-556,36 + 100 + 270,76$, hau da, 927,12 euro hilean—, alde batetik, ezin zitzaizolako osorik esleitu zordunari, eta bestetik, ez luke ahalbidetuko egindako enbargoen zenbatekoak mantentzea, izan ere, lehenik eta behin, pentsio gisa jasotako prestazioa, hilean 270,76 eurokoa, 14 hilekotan banatuta, enbargatutako kontu korrontean kobratzen zena, titular eta onuradun bakar gisa jasotzen baitzuen kexagilearen alabak (2018ko abenduan adin-nagusitasunera iritsi zena), eta, bigarrenik, ez baitzen ohartu kontu korrontearen titulartasuna kaltetuaren eta haren alabaren artean partekatuta zegoela. Haren alaba adinez nagusia da eta ez da erakunde horren zorduna. Hortaz, titularkidetasun hori eta kontu horretan zorduna ez den titularkideari zegozkion saldoak errespetatu beharko ziren.

Era berean, bidalitako txostenean, Zerga-bilketako Zerbitzuak zehazten zuen ordaintzeko zegoen zor osoa, une horretan, 3.655,79 eurokoa zela, eta adierazi zuen urrian Gasteizko Udaleko Osoko Bilkurak 2020ko ekitaldirako Ordenantza Fiskalak onartu zituela, behin-behinean. Ordenantza horietan zorraren zatikapenak emateko baldintzak malgutzea jasotzen zen, eta, beraz, baldintza berriekin, kaltetuak zorra zatikatu ahalko luke, hileroko 115 euro inguruko kuota batean. Hala ere, hileko zenbateko hori gutxi gorabeherakoa zela ere onartzen zen, ateratzen zen kuota zorraren zenbatekoaren eta zatikapena formalizatu zenean aplikatu beharreko interesaren araberakoa baitzen.

Arartekoaren ustez, zor dena bezalako zenbateko bat ordaintzeak, zenbateko osoa apala dela dirudien arren, ez luke oztopo gaindiezina izan behar familia baten biziraupenerako, nahiz eta familia hori egoera ekonomiko zailean egon, baldin eta zorra familiak bizi zuen errealitate ekonomikoa kontuan hartuta





zatitzen bazen, eta, beraz, zorraren preskripzioaren denbora-mugarainoko ordainketa-egutegiak bultzatzen baziren. Hori dela eta, Gasteizko Udalari ere hausnarketa horren berri eman zitzaion.

Adierazi beharra dago kexagileak azaldu duenez, zorra zatikatuta ordaintzeko egindako proposamenak ordaintzeko egutegia jasotzen zuen (18 hilabete, gehienez ere), eta horrek hilean 200 euro baino gehiago ordaintzea eskatzen zion.

Zatikapenerako ezarritako zenbatekoa, hasiera batean, onargarria izan zitekeen; hala ere, interesdunaren familiaren ekonomian ez zen egingarria, izan ere, kexagilearen eta haren alabaren elikadura- eta etxebizitza-beharrak asetzeko erabiltzen ari ziren baliabide batzuei uko egitera behartzen baitzuen.

Hain zuzen ere, Gasteizko Udala bera, bere gizarte-zerbitzuen bidez, bizikidetzaren unitate horren baliabideak osatzen ari zen, gizarte-larrialdietarako laguntzak emanez, familiak etxean argindarra eta gasa hornitzeko gastuei aurre egin ahal izan ziezaien.

3. Bigarren txostenean, Gasteizko Udalak erabaki zuen soldata, lansai edo pentsioaren enbargoak kexaren sustatzailearen diru-sarrerei soilik erantzun behar ziela, eta, beraz, bere alabak onuradun bakar gisa jasotzen zuen zurtasun-pentsioa kanpoan utzi behar zela. Era berean, onartu zuen saldoa zati berdinetan zatituta egon behar zela, salbu eta titulartasun material desberdin bat frogatzen bazen; beraz, enbargatutako saldoak itzultzea erabaki zen.

Azkenik, txostenean aitortzen zen Zergen Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoarekin bat etorriz, Zerga-bilketako Zerbitzuak 18 hilabeteko ordainketa-egutegia (hasieran proposatutakoa), hilean 200 euroko kuotarekin, 24 hileko gehieneko kuota eta 115 euroko kuota dituen egutegira zabaldu zezakeela.

Gogoetak

1. Gasteizko Udalak kexagilearen aurkako premiamendu-prozeduran sortzen ziren gai batzuk bideratu ditu. Hala ere, interesdunari planteatutako ordainketa-zatikapena aztertzeke dago, Udalarekin duen zorra kitatu ahal izateko. Zorra 3.655,79 eurotik gorakoa da. Borondatezko epea, zor horren zenbatekoa 2.340,60 eurokoa da.





Aurreratu behar da, une honetan, Gasteizko zergen eta tokiko zuzenbide publikoko beste sarrera batzuen kudeaketa, bilketa eta ikuskapenerako ordenantza orokorraren geroratze eta zatikapenak emateko irizpide orokorretan sartutako modulazioa ez dela nahikoa egoera ahulenei erantzun egokia emateko.

Erakunde honek dakiela, Gasteizen, badira zenbait kasu irtenbiderik jaso ez dutenak, nahi eta ordainketa-egutegia 6 hilabetez luzatu den. Malgutasun hori, nolana ere, onartu behar da oso positiboa eta zuzena dela egoera ekonomiko askoz ere lasaiagoa duten zergadunentzat.

Hala ere, azpimarratu beharra dago etxe askotako errealitatea oso korapilatsua dela, eta hurbileko administrazioek ez badituzte laguntzeko bide egokiak eskaintzen, familiak aurrera egiten ahalegindu daitezten, zorraren kronifikazio-maila handiagoetara egingo dela, ekonomikoki eta sozialki okerrera egingo dela eta ukitutako familiak baztertu egingo direla.

2. Gasteizko Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorraren IV. kapituluan, 77. artikulutik 86. artikulura, atzerapenak eta zatikapenak arautzen dira. (BOTHA 148,27-12-2019).

Gasteizko Udaleko Zerga-bilketa Zerbitzuak defendatu duenez, zergadunari eskainitako zatikatzea bat dator udal arau horrek ezarritako aurreikuspenekin, eta erakunde horrek ezin du zalantzan jarri. Hala ere, agerian jartzen saiatu garenez, ordainketaren zatikapenaren erregulazio hori ez da baliagarria izaten ari biztanleriaren sektore zabal batek eskatzen dituen premiei erantzun egokia emateko; izan ere, sektore hori ahultasun ekonomikoko egoeran dago, eta zorren bat du Gasteizko Udalarekin eta ezin du ordainketa bakarrean ordaindu.

Dakizunez, Gasteizko beste familia batek —adingabeak zituen bere ardurapean, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuen— zituen zailtasun ekonomiko larrien ondorioz, erakunde honek iradokizun bat egin zion Gasteizko Udalari, 2017ko martxoan. Horren bitartez, Arartekoak adierazi zuen premiazkoa zela Kudeaketa eta Diru-bilketako Udal Ordenantzaren xedapenak aldatzea, zaurgarritasun-egoeran zeuden familiek duintasunez ordaindu ahal izateko toki-erakunde horrekiko dituzten zorrak, zatikaturik.

Arartekoari helarazitako erantzunean, Gasteizko Udalak adierazi zuen Diru-bilketa Zerbitzuak 2018ko Ordenantza Fiskalen proposamena prestatzen ziharduela, zatikatze eta geroratzeen epeak luzatze eta zenbatekoak handitze



aldera, zerga-betebeharrak betetzeko, zorren ordainketa malgutzeko eta, ahal zen heinean, enbargoak saihesteko.

Gainera, Udalak jakinarazi zigun Ogasun Saila eta Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila elkarlanean ari zirela, dirua biltzeko prozeduretan eta udal-laguntzak emateko prozeduretan hobekuntzak egiteko.

Gasteizko Udalak aldatu egin zituen Kudeaketa, Zergen eta Zuzenbide Publikoko Bestelako Diru-Sarrera Lokalen Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorren 79. artikulua (ondorioetarako data: 2018ko urtarrilaren 1a), eta 1. paragrafoak hauxe zioen:

“79. artikulua. Atzeratzea eta zatikatzea emateko irizpide orokorrak.

1. Zatikatzek

Gehienez, 24 hilekotan zatikatu ahalko da zorra ondoren agertuko diren irizpideekin bat, borondatezko aldian nahiz betearazte aldian dauden ordainketetan.

- 1.500,00 euroko edo hortik beherako zorra bada, gehienez 12 hilekotan zatikatu ahalko da.*
- 1.500,01 eurotik 3.000,00ra bitarteko zorra bada, gehienez 18 hilekotan zatikatu ahalko da.*
- 3.000,01 eurotik gorako zorra bada, gehienez 24 hilekotan zatikatu ahalko da.*

Hileko kuota konstanteen bidez egingo da ordainketaren zatikatzea; tronkoak, errekarquak eta berandutze-interesek osatuko dute kuota bakoitza, eta ezingo da izan 30 eurotik beherakoa.

Erregistratuak dauden irabazte xederik gabeko elkarte eta erakundeek dituzten zorrak zatika ordaindu ahalko dituzte, gehienez, 24 hilekotan eta edozein delarik horien zenbatekoa.”

Zenbatekoen modulazio horrek, erakunde honen iritziz, ez du aldaketa esanguratsurik jasotzen, eta, hortaz, ez die familiei laguntzen duintasunez ordaintzen toki-erakunde horrekiko dituzten zorrak, zatikaturik; izan ere, zordunak ezin zien aurre egin modu ordenatu batean bere betebeharrei, egungo eta etorkizuneko bere baliabideak hondatu gabe.

2020an, Ordenantzako artikulua honetan honela adierazten da:

“79. artikulua. Atzeratzea eta zatikatzea emateko irizpide orokorrak.

1. Zatikatzeak

Gehienez, 24 hilekotan zatikatu ahalko da zorra, borondatezko aldian nahiz betearazte aldian:

Hileko kuota konstanteen bidez egingo da ordainketaren zatikatzea; tronkoak, errekaruak eta berandutze-interesek osatuko dute kuota bakoitza, eta ezingo da izan 30 eurotik beherakoa.

Helbideratutako zatikapenetan, hil bakoitzeko 30ean gauzatu da ordainketa, egun balioduna bada, edo, bestela, egun horren aurreko azken egun baliodunean.

2. Atzeratzeak

Gehienez, 12 hilabetez atzeratu ahalko dira 350 eurotik 10.000 eurora bitarteko zorrak, ondoren agertuko diren irizpideekin bat, borondatezko aldian nahiz betearazte aldian dauden ordainketetan.

- 350 eurotik 3.000,00ra bitarteko zorra bada, gehienez 6 hilabetez atzeratu ahalko da.*
- 3.000,01 eurotik 6.000,00ra bitarteko zorra bada, gehienez 9 hilabetez atzeratu ahalko da.*
- 6000,01 eurotik 10.000,00ra bitarteko zorra bada, gehienez 12 hilabetez atzeratu ahalko da.”*

Araubide orokorrarekin batera, Ordenantza honen 77.10 artikulua aparteko araubide bat ere zehazten du, aparteko beharriari erantzuteko, eta honela dio: *“Aparteko beharra gertatzen den kasuetan zerga zorrak edo isunak -edozein dela haien izaera— atzeratu edo zatikatzea baimendu ahalko da ordenantza honetan ezarritako arauarekin bat etorri behar izan gabe, baina horretarako Diru-bilketa Zerbitzuak aldeko txostena eman beharko du. Kasua hori denean, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena izango da atzerapena erabakitzea, eta horren berri emango du Ogasun Batzordean.*

Ez dira inolaz ere emango atzeratu nahi diren zorren preskripzio-epea gainditzen duten atzeratzeak.”



Adierazi den bezala, prozedura hau *"aparteko premia duten egoerei"* erantzuteko aurreikusita dago, eta, beraz, Gasteizen familia askok bizi dituzten ahultasun ekonomikoko egoerak ez dira sartzen erregimen horretan, eta eskatzen duten zatikapena ordainketaren zatikapenaren aurreikuspen orokorretara bideratzen da.

3. Aitortu behar da Gasteizko Udalak Kudeaketa, Zerga Bilketa eta Ikuskapen Ordenantzan jasotzen duen ordainketa-zatikapenaren erregulazio orokorra pentsatuta dagoela zergadunek beren zorrak ordaindu ahal izan ditzaten likidezia-faltako egoera koiantural edo iragankorretan. Hala ere, unean uneko edo aldi baterako likidezia falta horrekin batera, ahultasun ekonomiko estrukturalagoko beste errealitate bat ere badago, biztanleriaren beste sektore bati eragiten diona, higiezinaren burbuilaren ondoriozko krisiaren ondorio lazgarriak biziki pairatu dituena, eta, gaur egun, aurrera egiteko baliabide ekonomiko apalak dituzte eta udal horrekin metatutako zorrari ere aurre egin behar diote.

Zergadun zaugarriago horiek ordainketaren zatikapenaren behar handiagoa dute, zorrak ordaindu ahal izateko.

Egiturazko ekonomia-estutasun egoera eta, horrenbestez, zailtasunak dituzte zergadun askori eragiten dizkieten zerga-zorrak ordaindu ahal izateko. Izan ere, ordaintzeko betebeharrak existitu existitzen dira, orain arte diru-bilketari buruzko araudian jaso ez diren arren. Hortaz, erakunde honen ustez, saihestezina da diru-bilketako prozedurak arautzen dituen araudi-esparrua gainditzea eta malgutzea, herritarren behar horiei erantzun zentzudun bat emate aldera.

Horrek zergadun horiek bermeak aurkeztetik salbuestea eta ordainketa egutegiak ahalik eta gehien zabaltzea eskatzen du, gutxienez zorrak preskribatzeko mugara arte. Hilean 30 euroko hondar kuotak ezartzeak ere, 79.1 artikulua 2. paragrafoan jasotako modukoak, ahalbidetuko luke zorraren ordainketa antolatu eta mailakakoan aurrera egitea, familiako ekonomia horien oraingo eta etorkizuneko iraupena kaltetu barik.

Adierazi beharra dago zorra ez ordaintzea, gaur egun eskura dituzten baliabideekin ezin dietelako aurre egin beren diru-sarrearen parekoak diren zatikatzei, ez dela irtenbide bat; izan ere, ez da kontuan hartzen zorra betearazpen bidean kobratzeko fasean dagoela. Beraz, zorraren zenbatekoa handitzen ari da gainordainekin, interesekin eta kostuekin. Era berean, ordain daitekeen zenbateko baten balizko ordainketa espontaneoak ez luke ekidindo





zorraren printzipalak diru-bilketako prozeduraren errekarguak, interesak eta kostuak sortzen jarraitzea; beraz, kopuru txiki horiek ez lukete balioko benetan hartutako zorraren zenbatekoa murrizteko, ezta igoera neutralizatu ahal izateko ere.

4. Egoera zail horien aurrean, kasu batzuetan, Prozedura Zibilaren Legeak (PZL) ezartzen dituen aurreikuspenak har litezke erreferentziatzat, eta ordainketa-egutegiak adostu ahalko lirateke, betiere, zenbatekoak ez baditu gainditzen arau horren 607.2 artikulua LGS baino errenta handiagoko lehen tarterako; izan ere, zenbateko hori, ondasunak enbargatuz gero, foru-ogasun horrek hilean ekar lezakeen gehieneko zenbatekoa izango litzateke.

Artikulu horrek honela dio:

“2. Lanbidearteko gutxieneko alokairua gainditzen duten alokairu, soldata, egunsari, ordainsari edo pentsioak honako eskala honen arabera enbargatuko dira:

1.) Lanbidearteko gutxieneko alokairua gainditu eta hori bikoiztu arteko zenbatekoari dagokionez, 100eko 30 enbargatuko da.

2.) Lanbidearteko gutxieneko alokairua hirukoizten duen zenbatekoari dagokionez, 100eko 50.

3.) Lanbidearteko gutxieneko alokairua lauukoizten duen zenbatekoari dagokionez, 100eko 60.

4.) Lanbidearteko gutxieneko alokairua baino bost aldiz handiagoa den zenbatekoari dagokionez, 100eko 75.

5.) Aurreko muntatik gora, 100eko 90.”

Hala ere, artikulu horren 4. atalak honako hau gaineratzen du: *“Alderdi exekutatuak dituen familia-zamak aintzat hartuz, auzitegiak 100eko 10etik 100eko 15a arteko beherapena egin dezake artikulu honen 2. paragrafoko 1, 2, 3 eta 4. zenbakiek ezarri ehunekoetan”*. Adierazi den bezala, familia honetan hiru seme-alaba adingabe daude.

Prozedura Zibilaren Legeria zordunak bere betebeharrak ordaintzeko asmoz eman da, baina horren baliabideak suntsitu gabe. Prozedura Zibilaren Legean soldatak eta antzeko beste errenta batzuk bahitzeko mugak ezarri dira,





legegileak erabaki duelako zordun guztiei bermatu behar zaiela bizitzeko gutxienekoa dutela ohiko beharrak asetzeko.

Gutxieneko hori edukirik gabe geratuko litzateke araurik zorrotzenak egikarituko balira. Hau da, Prozedura Zibilaren Legeak -zeinaren printzipioak bete behar dituzten zerga-administrazioek ezartzen dituzten enbargoek- nahi du nahitaezko betearazpenak ez suntsitzea guztiz zordunaren bitzta ekonomikoa eta ez jartzea arriskuan bere eta bere familiaren biziraupena.

Hori bai, adierazi bezala, zergadun horienganako arretak eskatzen du bermeak aurkezteaz liberatzea eta ahalik eta gehien zabaltzea ordainketen egutegia; gutxienez, zorrak preskribatzeko mugara arte.

Hilean 30 euroko hondar kuotak ezartzeak ere, 79.1 artikularen 2. paragrafoan jasotako modukoak, ahalbidetuko luke zorraren ordainketa antolatu eta mailakakoan aurrera egitea, ekonomia apalago horien oraingo eta etorkizuneko iraupena kaltetu barik.

5. Arartekoa jakitun da diru-bilketaren funtzioak betetzeak zailtasun bereziak dituela une hauetan, zergadun askok egoera ekonomiko oso zailei aurre egin behar izaten baitiete. Egoera horiek, hain zuzen ere, aurreko higiezinen krisiaren ondorio dira, eta, gainera, une historiko honetan, beste faktore distortsionatzaile bat dago, gaur egun ezagutzen ez diren benetako ondorioak dituen, hala nola, osasun-krisiaren ondorioz bizi dugun krisi ekonomiko sakona koronabirusaren pandemiak eragindakoa. Dena den, diru-bilketari buruzko araudiak ez luke alde batera utzi behar egiturazko zaurgarritasun ekonomikoaren errealitate bat dagoela, Gasteizko etxe askotan bizi dutena, eta etxe horiek, Gasteizko Udalaren laguntzarik gabe, ezin izango dutela aurrera egin egungo egoera sozioekonomikoan; aldiz, zoritxarrez, prekarietate ekonomiko handiagoko eta gizarte bazterketako egoeretan sartuko dira.
6. Gasteizko Udalak diru-bilketaren kudeaketa hobetzeko bere buruari eman dion araua da Gasteizko zergen eta zuzenbide publikoko bestelako tokiko diru-sarreraren Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzari buruzko Ordenantza Orokorra. Beraz, toki erakunde horrek malgutu egin dezake, eta udalerriko familia asko bizi izaten ari diren zaurgarritasun handiko errealitate horretara egokitu.
7. Ararteko honek uste du, objektiboki, une honetan kexagileak ezin diola aurre egin zorraren ordainketari epekako ordainketa baimendu ezean eta bere baliabideetara benetan egokitutako ordainketa egutegi bat izan ezean.





Eskainitako ordainketen egutegiak eskatzen du pertsona horrek hilean 115 euro baino gehiago ordaintzea, zorra era antolatuan kitatze aldera. Bada, bere biziraupena kolokan jarri barik bere gain har dezakeena baino handiagoa da zenbateko hori. Familia horren egoera ekonomikoa testuinguruan jartzeko, aipatu behar da udalerrri horretako Gizarte Zerbitzuek hilean 100 euroekin osatzen dituztela bizikidetzaren unitate horretako diru-sarrerak, bizi diren etxebizitzako horniduraren eta gasaren gastuei aurre egin ahal izan diezaieten. Higiezina ez da beren jabetzakoa.

Egoera zailtan familia-ekonomia xumeek nekez egingo diote aurre denboran zehar ordainketak egiteko egutegiari, euren eta seme-alaben bizimodua ateratzeko baliabideen zati oso handia horretarako bideratu behar baldin badute, nahiz eta hartutako zorra ordaintzeko borondate sendoa izan.

Ararteko honek uste du itzuli beharreko zorra zatitzearen ondoriozko zenbatekoa elementu objektiboek zehaztu behar dutela, bizikidetzaren unitateari bizi-minimo bat bermatzeko helburua bermatzeko. Zaurgarritasun egoeran dauden eta oinarritzko premiei aurre egin ezin izateko arrisku handia duten familien hileko diru-sarreraren kopuru handia erreklamatzeko duen zorraren ordainketa zatikatzeak tratamendu objektibo eta proportzionala behar du, haien zailtasun sozialak larriagotu ez daitezela.

Pertsona horiek duten egoera sozioekonomiko zailei ikuspegi integral batetik heldu behar zaie ezinbestean, eta, horretarako, nahitaezkoa da gizarte zerbitzuak eta diru-bilketa zerbitzuak lankidetzaren aktiboan aritzea.

Hori dela eta, erakunde honek azpimarratzen du ezinbestekoa dela gizarte zerbitzuen eta udalaren diru-bilketa zerbitzuen arteko lankidetzaren errealia eta eraginkorra. Horrek ekarriko luke ez-ordaintzeak hasierako faseetan detektatzea eta horiei irtenbidea ematea, gizarte bazterketa handitu gabe. Zerbitzu horiek lankidetzaren arituz gero, eta ukitutako familia horiei lagunduz gero, metatutako zorra kronifikatzea galaraziko litzateke, eta ordaindu beharreko zenbatekoek ez lukete arriskuan jarriko familia horien biziraupena.

8. Azkenik, nabarmendu behar dugu erakunde honek ez duela nahi familia honi tratamendu pribilegiatua ematea, baizik eta ahultasun egoeran dauden pertsonen eta familien Gasteizko Udalarekin pilotutako zorrak ordaindu ahal izatea, ordainketa horrek pertsona eta familia horien gizarte bazterkeriako arriskua larriagotu gabe eta biziraupena arriskuan jarri gabe. Hau da, zorra zatitzeko eskainiko zaien akordioak zorra ordaintzeko aukera errealia ekar dezala, toki erakunde honekin beti zorretan egotera kondenatuko ez dituen





(metatutako zorra denbora igaro ahala handitzeagatik). Izan ere, objektiboki ezinezkoa zaie beren oinarrizko beharrianak estaltzeko behar duten zenbateko bat ordaintzeko eskatzen dien ordainketa egutegi bati aurre egitea.

Administrazio publikoek neurriak hartu beharko lituzkete zerga-prozedurek ez dezaten larriagotu pertsona batzuek bizi duten egoera ekonomiko larria, eta, beraz, ez daitezten joan pertsonen prekariedade eta gizarte-bazterketa handiagoko egoeretarantz.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Gasteizko Udalari iradokitzen zaio zergen eta zuzenbide publikoko tokiko beste diru-sarreraren Kudeaketa eta Diru-bilketari buruzko Udal Ordenantzaren testua aldatzeko, zaurgarritasun egoeran dauden familiek duintasunez ordaindu ahal izateko, zatikatuta, tokiko erakunde horrekin pilatu dituzten zorrak.
2. Gainera, komenigarria litzateke Gasteizko Udalak, zatikatzek baimentzean, kasuaren inguruabarrak neurtzea, kudeaketa publikoan aplikatu beharreko eraginkortasun printzipioa kontuan hartuta. Printzipio hori aplikatzek zordundutako zenbatekoak itzultzearen alde egiten du, pertsonari betebeharrak betetzea galaraziko dion gizarte bazterketarako prozesua larriagotzea ekarri gabe eta familiek dituzten betebeharrak betetzea eta oinarrizko beharrak asetzea eragotzi gabe.
3. Ukitutako familiaren ahultasun egoerak oso zail egiten du zorraren ordainketari aurre egin ahal izatea, ez bada bere oraingo egoera ekonomikoarekin bateragarria den pilatutako zorraren ordainketa zatikatuz. Ezin dugu ahaztu zorraren zenbatekoa etengabe areagotzen ari dela premiamenduzko prozeduraren gainordain, kostu eta interesen ondorioz.

